

Taldea pixka bat ezagutzera emateko balio izan zuen mini CD bat kaleratu ondoren, III talde gipuzkoarrak *The sun behind the shadows* (Avispa) diskoa argitaratu berri du. Begi bat 70eko hamarkadan eta bestea 90ekoan duen talde honek rock gogorrez beteriko lan sendo eta trinkoa osatu du, eta zuzeneko emanaldietan erakusten duen indarra diskora eraman du. Baina, nondik datoz III? Juancar Unsain abeslari eta gitarra joleari eman diogu hitza: «Taldea 96ko abuztuan sortu zen, baina laurok betidanik ezagutzen genuen elkar. Oihartzun handirik izan ez zuten taldeetan aritu ginen lehenago, eta III sortu ondoren, 97an, lehenengo maketa grabatu genuen, batez ere tabernetara eraman ahal izateko. Eta urte osoa eman genuen kontzertuak egiten».

Zuzenean jotzea izan da orain arte illekoen helburu nagusia, eta helburu hori aise bete dute. Dagoeneko ehun kontzertu inguru egin dituzte, eta horretaz gain, lehiaketetan ere iaio dira. Donostia Hiria lehiaketa irabazi zuten, eta horri esker bost kantuko CD bat kaleratu. Lan harekin diskoetxe batzuetara joan ziren eta azkenean Avispak fitxatu zituen. Aurten, berriz, Bilbo Hiria lehiaketan Euskal Herriko talde onenaren saria eskuratu zuten: «Animoa emateko balio dute lehiaketetako sariak, azken batean egindako lanari emandako sariak dira eta. Baina garrantzitsuena jotzea da, zeren eta talde batek jotzen ez badu hil egiten da».

The sun behind the shadows Ille CD berrian zuzeneko kontzertuen indarra islatzen saiatu direla dio Juancarrek: «Diskoa zuzenean grabatu dugu, moldaketa gutxirekin; eta kontzertuen izpiritu islatu nahi izan dugu. Finean, zuzeneko soinua CDra egokitu dugu».



Terapia metalikoa

Illeko kideak musikazaleak dira, eta diskoak entzutea da euren afizio nagusietakoa. Horrexegatik, hain zuzen ere, deitzen dira III (gaixo ingelesez): «Diskoak elkarri pasatzen dizkiogu, eta etengabe ari gara beste diskoetatik ikasten. Melomanoak gara, eta taldea terapia gisa hartzen dugu». Gainera, beste talde askok ez bezala, Illek argi eta garbi onartzen du zeintzuk izan diren taldeari eragin dioten musika estiloak: «Batez ere 70eko eta 90eko hamarkadetan egin

den musikak eragin digu: 70eko hamarkadatik Led Zeppelin, Thin Lizzy, Black Sabbath..., eta 90eko hamarkadan Kyuss, Monster Magnet, Afghan Whigs... pixka bat atzera begiratzen duten taldeak guztiak».


The sun behind the shadows disko gordina eta iluna da; dentsitatez beterikoa. Hori da, hain zuzen ere, taldekideek lortu nahi zuten soinua: «Zuzeneko soinua hori lortu nahi genuen, elkarrekin jotzen duzunean lortzen duzun energia». Hard oinarria sendoa izan arren, diskoak melodiei lekua uzten die, eta *A relax factor* edo *He flows desire* bezalako kantuetan murgiltzea ez da batere zaila. «Ez dugu mugarik jartzten, eta gustatzen zaizkigun taldeen eragina nabaritu egiten da. Led Zeppelin, Tool eta Kyuss gustatzen zaizkigu, baina baita Leonard Cohen eta Tom Waits ere. Gustatzen zaigun

edozein abestik eragiten digu». Ille diskoak erakusten du abestiak oso landuta daudela, lokalean lan handia egin dutela taldeko partaideek. Gainera, Juancarrek dioenez, garrantzitsua da egiten dutenarekin pozik egotea: «Taldekide bakoitza identifikatu egin behar da kantuekin, eta laurok ideia batekin ados egon arte denbora pasa daiteke. Laurok bat bagatoz, errazago transmitituko ditugu gure sentipenak».

Diskoa kalean dagoela, zuzenean aurkezteari ekin behar dio taldeak. Oraingoz, aste honetan bertan bi aurkezpen egingo dituzte, bata Irunen eta bestea Bilbon. ■ mikel lizarralde

III
Bilboko Bilborocken eta Irungo Tunklen
Gaur (21:00etan) eta bihar (21:00etan)

Bernard Butler



Bernard Butler eta Kafha

Bilboko Kafe Antzokian
Gaur, 22:30etan. Doan.

■ mikel lizarralde

Euskadi Gazteak urtero antolatzen duen maketa lehiaketak badu irabazlea dagoeneko —Eibarko Kafha taldea—, eta ohi bezala, aurten ere musikari ezagun batekin jotzeko aukera izango du: Bernard Butler. Musikari hori gaur egun egiten duenagatik baino ezagunagoa da bakarlari hasi aurretik gidatu zuen proiektuagatik.

Izan ere, Bernard Butler ezin besteko kidea izan zen Suede taldearen lehendabiziko bi diskoetan —*Suede* dudatia eta *Dog man star* bikaina—, eta ondoren taldea utzi zuen eztabaida dezenteren artean.

Taldea laga eta ondorengo bidea, ordea, ez da izan hain arrakastatsua gitarra jolearentzat.

Beste musikari eta talde batzuekin lan egin du, eta orain dela urte pare bat bakarlari gisa estreinako lehen diskoa atera zuen, *People move on*. Lan hark, ordea, ez zituen bete aurreikuspenak, eta Sueden jarraitzaile asko ez ziren gustura geratu emaitzarekin. Orain, berriz, *Friends & lovers* disko berriarekin datorkigu, lehen disko hura baino zentratuagoa dagoen lan batekin, hain zuzen ere. Bernard Butlerrek berak azaldu duenez, bera ere askoz gusturago gelditu da lan honekin: «Hau da nire lanarekin erabat ados nagoen lehenengo aldia. Nire lehenengo diskoan ez zegoen eman nahi nuen guztia. Lan zintzoa zen, baina adierazi nahi nuenaren erdia baino ez zuen adierazten. Azken hau erabakiagarriagoa eta basatiagoa da. Zinez, uste dut lan honetan askoz gehiago eman dudala».

Sueden unerik gorenentara iritsi gabe, lan biribilagoa egin du Butlerrek, eta *Everyone I know is falling apart*, *Smile* eta *Let's go away* bezalako abestiek erakusten dute oraindik gertuago dagoela Suedetik Mansunetik baino.

Gitarra baino gehiago